



Ekipoa	Mintzen bioerreaktorea
Kodea	A-1008
Ingurumen-hobekuntza	<ul style="list-style-type: none"> - Hondakin-uren karga organiko handia kentzea. - Araztutako ura berrerabiltzea, eta, horrenbestez, uraren kontsumoa gutxitzea.
Honetan datza:	<p>Mintzen bioerreaktorea da hondakin-urak tratatzeko sistema trinko bat, lohi aktiboen errektore baten lana eta mintz bidezko iragaztea uztartzen dituena. Mintzak erabiltzen dira materia esekia (biomasa) eta hondakin-ur araztuak bereizteko. Lohi aktiboak tratatzeko ohiko sisteman dekantazio-andelak egiten duen zeregina betetzen dute mintzek.</p> <p>Mintzen bioerreaktore batek bi zati dauzka integratuta: batetik, arazketa biologikoaz arduratzen den errektore biologikoa; eta, bestetik, biomasa eta ura fisikoki bereiztea, mintzen bitartez iragazketa zuzena egiteko sistema baten bidez. Gainera, bi prozesuen integrazioak eragin sinergikoa du, batetik, mintzetatik igarotzeak biomasaren egoera fisiologikoan dituen ondorioengatik, eta, bestetik, sistemak gaitasun handiagoa duelako OEK koloidala ezabatzeko, izan ere, mintza igarotzen ez duenez, denbora luzeagoz ukitzen du biomasa.</p> <p>Mintzen bioerreaktoreek bi zati dauzkate integratuta: batetik, arazketa biologikoaz arduratzen den errektore biologikoa, eta, bestetik, biomasaren eta uraren bereizketa fisikoa, mintzekiko iragazketa zuzena egiteko sistema baten bidezkoa. Bi prozesuak prozesu batean integratzeak, gainera, efektu sinergikoa du, mintzetatik igarotzeak biomasaren egoera fisiologikoan duen eraginagatik, batetik, eta sistemak oxigeno-eskari kimiko (OEK) koloidala ezabatzeko gaitasun handiagoa izateagatik, bestetik; izan ere, mintza igarotzen ez duenez, askoz denbora luzeagoan ukitzen du biomasa.</p>
Zein sektoretan aplikatu daitekeen	<p>Teknika hori erabili daiteke EOK (EOK mg/l milaka gutxi batzuk) eta/edo N (N mg/l-ren ehunka gutxi batzuk) asko duten industriako hondakin-uren tratamenduan. Teknologia hori emari gutxi samarreko hondakin-uretarako erabiltzen da, eskuarki (10–100 m³/egun).</p> <p>Hondakin-urak arazteko prozesuetan aplikatuko da, ur garbiak berrerabiltzeko sektore hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elikagaien eta edarien industria (NACE 10). - Ehungintza (NACE 13). - Paper-industria (NACE 17). - Industria kimikoa (NACE 20).



- | | |
|--|---|
| | <ul style="list-style-type: none">- Metalak tratatzeko eta estaltzeko industria (NACE 25.6).- Eta beste industria-sektore batzuk, hondakin-urekin arazo berdinak dituztenak. |
|--|---|